

EUSKAL HERRIKO TRIKITILARI GAZTEEN XXVI. TXAPELKETA (2017)
PARTAIDEEN ADINA

<p>SOINULARIA: Zaharrena, 1998an jaioa (13 urtetik 19ra) Gazteena, 2004an jaioa</p>	<p>PANDERO-JOLEA: Zaharrena, 1998an jaioa Gazteenak ez dauka mugarik behetik</p>
<p style="text-align: center;">KANPORAKETAK</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. KANPORAKETA ARAMAION (AZAROAK 4) 2. KANPORAKETA AZKOITIAN (AZAROAK 11) <p>1.- Partehartzaileek gai hauek jo behar dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> - BIZKAIKO TRIKITIXA - PORRUSALDA - FANDANGOA - ARIN-ARINA. <p>2.- Zozketa bidez eratuko da partaideen hurrenkera. Horretarako, partehartzaileak saioa hasi baino ordu erdi lehenago egon behar dira kanporaketa egingo den tokian.</p> <p>3.- Kanporaketak amaitu ondoren, puntu gehien lortu duten 8 bikoteek Zaldibarko finalean hartuko dute parte.</p> <p>4.- Bikote bakoitzari 90 euroko bidaia-ordaina emango zaio kanporaketetan.</p> <p>5.- Epaimahaiaren erabaki eta puntuazioak alda ezinak dira, eta hez dago horien aurka egiterik.</p> <p>6.- Txapelketa honetan parte hartzeak berekin dakar oinarriak bete-betean ontzat ematea.</p> <p>7.- Kanporaketako piezak ezin izango dira jo finaleko saioan.</p> <p>8.- Izena ematen duten lehenengo hogeitau bikoteak hartuko dira kanporaketetarako.</p>	<p style="text-align: center;">FINALA ZALDIBARREN Azaroaren 26an – 17:30ean</p> <p>1.- Partehartzaileek gai hauek jo behar dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> - BIZKAIKO TRIKITIXA - PORRUSALDA - "IDIAZALDIBAR" FANDANGOA (JOSEBA IPARRAGIRREK EGINA) - ARIN-ARINA. <p>2.- Partehartzaileen hurrenkera kanporaketetako puntuen arabera egingo da, punturik gutxien lortu duen bikotetik hasi eta gehien lortu duenak azkeneko tokian jo arte. Hau da, kanporaketetan 8. gelditu denak joko du lehenengo Zaldibarko finalean, gero zazpigarrenak, eta horrela elkarren hurrenkeran.</p> <p>3.- Epaimahaiaren erabaki eta puntuazioak alda ezinak dira, eta horien aurka ere ezin da jo.</p> <p>4.- Txapelketa honetan parte hartzeak oinarriak bete-betean ontzat eman direla esan nahi du.</p> <p>5.- Partaideek lortutako puntuetan berdinketarik gertatzen bada, IDIAZALDIBAR fandangoa jotzen lortutako puntuak apurtuko dute berdinketa. Hala ere, hor ere berdinketarik balego, kanporaketetako puntuazioak erabakiko luke sailkapena.</p>

ANTOLATZAILEAK: ZALDIBAR ELIZATEKO UDALA ETA KORAL ELKARTEA